

KOIUNTURA DI-DA BATEAN

2020ko uztaila

Aurkibidea

1. EAEko aurreikuspenak
2. Gizarte Segurantzako afiliazioa
3. Langabezia erregistratua
4. Inflazioa
5. NDFren aurreikuspenak
6. PMI konposatua
7. Hilabeteko laburpena

Eranskina

1. EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena behertantz berrikusi da.

Aurten BPGa %8,7 jaitsiko dela eta datorren urtean %6,7 suspertuko dela aurreikusten da.

2. Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitsiera areagotu da ekainean.

Hala ere, maiatzaren aldean afiliazioa handitu da oso zigor-tuta dauden jarduera batzuetan.

3. Langabeziaren igoera erritmoa apaldu zen ekainean.

Urte arteko tasa handiena, 25 urtetik beherako kolektiboan jaso da.

4. Kontsumoko prezioek beren erregistro negatiboak berresten dituzte.

Petrolioaren garestitzea oraindik ez da KPIra igaro.

5. Aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa

NDFk munduko ekonomiak aurten %4,9 egingo duela behe-ra aurreikusi du.

6. Enpresen konfiantza nabarmen hobetu da ekainean.

Ekonomia nagusietako PMI konposatuek indar handiz egin dute gora.

7. Hilabeteko laburpena.

Aurreikuspenak okertu dira, baina konfiantza itzultzen ari da.



AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena beherantz berrikusi da

Eskuragarri dagoen koitunturako informazioari esker, EAEko ekonomiaren hazkunde aurreikuspena, 2020-2021 aldirakoa, eguneratu ahal izan da. Hortik eratorri den taula makroekonomikoaren arabera, aurtengo BPGaren beherakada lehen kalkulaturakoa baino nabarmen handiagoa izango da, eta $-8,7$ an kokatuko da. Susperraldia 2021eko lehen erdian etorriko da eta urte horretan batez beste $6,7$ ko hazkundera izango du. Beraz, datorren urtean ez da 2019ko maila be-


rreskuratuko. Eskariaren bi osagai nagusiek jaitsi-era oso esanguratsuak izango dituzte aurtan. Alde batetik, azken kontsumoa $7,3$ jaitziko da, eta, bestetik, kapital eraketa gordina $9,6$ murriztuko da. Beherakada handiena bigarren hiru-hilekoan gertatuko dela aurreikusi da, eta harez geroztik urte arteko jaitsierak leunduko direla. Sektorekako azterketan, zerbitzuak dira gehien kaltetutako jarduerak.

BARNE PRODUKTU GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa


BARNE PRODUKTU GORDINA 2020

$-8,7$




AZKEN KONTSUMOA

Urte arteko aldakuntza tasa




KAPITAL ERAKETA GORDINA

Urte arteko aldakuntza tasa




INDUSTRIAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERAIKUNTZAREN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




Enpleguaren gaineko eragina oso handia izango da eta %7,0ko jaitsiera aurreikusten da lanaldi osoko lanpostu baliokideen kopuruan, urteko batez bestekoan. Tasa horrek esan nahi du 2019an baino 68.100 lanpostu gutxiago egongo direla. Zenbatespen hori ez da lanpostua galtzen duten pertsonen buruzkoa, baizik eta lan egin gabeko orduen kopurari buruzkoa, urteko lanaldi osoetan taldekatuta. Enplegua galtzen duten pertsonen estimazioa nabarmen txikiagoa da, lanik egin ez dutenen kopuru handi batek enpresarekiko loturari eusten baitio, ABEEEn bidez.

Bestalde, langabezia tasak gora egingo du aurten, batez beste, %13,7an kokatu arte, 2019ko datua baino ia lau puntu gorago.


ZERBITZUEN BALIO ERANTSIA

Urte arteko aldakuntza tasa




ENPLEGUA

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA TASA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza.



GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

Gizarte Segurantzako afiliazioaren jaitsiera areagotu da ekainean

Ekainean Gizarte Segurantzako afiliazioek alerta egoera hasi zenetik bizi den beheranzko bidea areagotu zuten. Zehazkiago adierazita, ekaineko urte arteko aldakuntza tasa $-3,1$ izan zen, maiatzekoa baino zortzi hamarren negatiboagoa. Tasa horren ondorioz, 30.500 afiliazio gutxiago daude aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta, eta ia 4.000 gutxiago, berriz, maiatzarekin alderatuta. Azken kopuru horrek garrantzi berezia hartzen du, ekainean afiliazioak igo egiten baitira maiatzarekin alderatuta.

Bi generoek afiliazioan bat-bateko beherakadaren profil bera erakusten duten arren, urte arteko aldakuntza tasa nabarmen negatiboagoa da gizonen artean ($-3,8$), eta emakumeen kasuan jaitsiera ($-2,4$) leundu egin da, zaintzaile ez-profesionalen eragina oraindik ere positiboa duelako. Hala eta guztiz ere, ekainean gizonen afiliazio kopuruak pixka bat gora egin zuen maiatzean erregistratutakoen aldean, jarduera batzuek, hala nola eraikuntzak, egitekoa areagotu zutelako.


GIZARTE SEGURANTZAKO AFILIAZIOA

GUZTIRA

Urte arteko aldakuntza tasa

EKAINEKO AFILIAZIOA


$-3,1$



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO

EMAKUMEAK


Urte arteko aldakuntza tasa



GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTAKO


GIZONAK

Urte arteko aldakuntza tasa



AFILIAZIOA INDUSTRIAN


Urte arteko aldakuntza tasa



Urtetik urterako aldaketei dagokienez, sektore publikoarekin lotura duten jarduerak bakarrik handitu dute afiliazioa, batez ere osasun arloko jarduerak. Aitzitik, jaitsiera oso handia da manufakturen industrian, ostalaritzan, merkataritzan eta jarduera administratiboetan eta zerbitzu osagarrietan.

AFILIAZIOA ZERBITZUETAN

Urte arteko aldakuntza tasa



Hala eta guztiz ere, ekaineko eta maiatzeko konparazioan ikusten da deseskalatzea jarduera horietako batzuei mesede egiten ari zaiela, eta beraietan afiliazioak handitzen ari direla. Zehazki, hilabete batean 1.343 afiliazio gehiago daude merkataritzan, 991 gehiago jarduera administratiboetan eta 805 gehiago eraikuntzan.

GIZARTE SEGURANTZAN AFILIATUTA DAUDEN LAGUNAK.

	2019ko ekaina	2020ko ekaina	Aldakuntza
AFILIAZIOA GUZTIRA	973.417	942.894	-30.523
Industria manufakturagileak	177.964	169.669	-8.295
Merkataritza	139.155	135.147	-4.008
Osasun arloko jarduerak	102.671	106.468	3.797
Hezkuntza	72.248	70.665	-1.583
Administrazio jarduerak	67.350	62.177	-5.172
Ostalaritza	67.166	61.120	-6.046
Eraikuntza	57.490	56.154	-1.336
Lanbide jarduerak	56.934	56.141	-793
Administrazio publikoa	48.282	48.388	107
Garraioa	42.443	41.494	-949
Etxeko langileak	30.075	28.599	-1.476
Bestelako zerbitzuak	27.283	25.813	-1.470
Informazioa eta komunikazioa	23.249	22.911	-337
Finantza jarduerak	18.173	17.406	-767
Jarduera artistikoak	16.136	15.088	-1.048
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	13.948	13.184	-764
Or horniketa	6.244	6.221	-23
Higiezinen jarduerak	4.161	4.126	-35
Energia horniketa	1.814	1.511	-304
Erauzketa industriak	568	552	-16
Lurraldez kanpoko erakundeak	62	58	-4

Iturria: Lana, Migrazioak eta Gizarte Segurantzaren Ministerioa.



LANGABEZIA ERREGISTRATUA


Langabeziaren igoera erritmoa apaldu zen ekainean

Koronabirusaren krisiak enpleguan duen eraginari eutsi zion ekainean, baina zertxobait arindu zuen eragin hori. Izan ere, Lanbidek emandako azken datuen arabera, hilabete horretan 144.448 langabe zeuden, aurreko hileko kopurua baino 2.500 pertsona gehiago, eta aurreko hiru hilabeteetan, hots, pandemia hasi zenean, 25.000 langabe inguru gehiago zeuden. Aurreko hilabeteetan gertatu

zen bezala, langabeziak gehiago egin zuen gora gizonen artean (%39,1) emakumeen artean baino (%22,9), eta, batez ere, 25 urtetik beherako biztanleria izan zen langabeziaren bilakaerak gehien kalte-tu zuena, %84,0 nabarmen igo baitzen aurreko urteko ekainarekin alderatuta. Atzerritarren artean ere nabarmena da langabeziaren gorakada hileko horretan (%34,7).



LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GUZTIRA Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EKAINA
+%29,7




LANGABEZIA ERREGISTRATUA. EMAKUMEAK Urte arteko aldakuntza tasa

LANGABEZIA ERREGISTRATUA. GIZONAK Urte arteko aldakuntza tasa




LANGABEZIA . GAZTEAK

Urte arteko aldakuntza tasa



LANGABEZIA . ATZERRITARRAK

Urte arteko aldakuntza tasa



Sektore ekonomiko guztiek langabeziaren igoeraren moteltze hori egiaztatu zuten, guztiek onura atera baitzuten jarduera ekonomikoa gero eta orokorragoa zelako. Zehatz-mehatz adierazita, zerbitzuek %32,0ko aldakuntza erlatiboa izan zuten, eta horrek 23.659 pertsonako aldakuntza absolutua ekarri zuen aurreko urtearekin alderatuta, haien hazkunde erritmoa murriztuz. Hala ere, oraindik badira langabeen kopuruak nabarmen gora egin duten jarduerak, hala nola hezkuntza

eta ostalaritza. Bestalde, industriak ere behera egin zuen bere igoera erritmoan, aurreko hilekoan jasotako %29,2tik ekaineko %33,5era, eta berriz ere urte arteko aldakuntza tasa handiena erregistratu zuen sektorea izan zen. Azkenik, eraikuntzak gainerako sektoreetatik oso urrun mantendu zuten hazkundeak (%18,6), bere jarduera gehienak ez baitziren hain baldintzatuak izan koronabirusaren egungo krisiagatik.

LANGABEAK

	2019ko ekaina	2020ko ekaina	Aldakuntza
LANGABEAK GUZTIRA	111.343	144.448	33.105
LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA			
Araba	18.633	24.343	5.710
Bizkaia	63.913	80.967	17.054
Gipuzkoa	28.797	39.138	10.341
SEXU ETA ADINAREN ARABERA			
Gizonak	46.834	65.135	18.301
Emakumeak	64.509	79.313	14.804
25 urtetik beherakoak	7.431	13.676	6.245
25 urte baino gehiago dutenak	103.912	130.772	26.860
EKONOMIA SEKTOREAREN ARABERA			
Lehen arloa	2.391	2.887	496
Industria	13.045	17.421	4.376
Eraikuntza	7.827	9.279	1.452
Zerbitzuak	73.988	97.647	23.659
Lehenago lan egin dutenak	97.251	127.234	29.983
Lehenago lan egin ez dutenak	14.092	17.214	3.122
ERREGISTRATUTAKO LANGABEZIA. ATZERRITARRAK			
Langabe atzerritarrak	17.530	23.608	6.078

Iturria: SEPE.




Departamento de
Hacienda y Economía

INFLAZIOA

Kontsumoko prezioek beren erregistro negatiboak berresten dituzte

KPI INDIZE OROKORRA

Urte arteko aldakuntza tasa



Maiatzeko KPIa koronabirusaren pandemiak baldintzatu zuen berriro neurri handiz. Hala, INEk argitaratu dituen azken datuen arabera, adierazle hori %0,7 jaitsi da urte arteko tasan, egungo alarma egoeran erregaien prezioek izan duten beherakadaren ondorioz. Beraz, lau hilabeteko dezelerazioa eta bi hilabeteko aldakuntza tasa negatiboak jaso ditu kontsumoko prezioen indizeak jadanik.

KPIAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasa eta ekarpenak

	2018	2019	2020ko maiatza	Ekarpena
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	-0,7	-0,7
Azpiko inflazioa (%81,2)	0,9	1,0	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%13,9)	0,9	0,6	2,5	0,3
- Industria ondasunak (%24,4)	-0,1	0,3	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%42,9)	1,5	1,6	1,0	0,4
Hondar inflazioa (%18,8)	4,6	0,8	-8,0	-1,5
- Landu gabeko janariak (%7,8)	2,9	1,3	5,5	0,4
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-16,9	-1,9

AZPIKO INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



HONDAR INFLAZIOA

Urte arteko aldakuntza tasa



BRENT MOTATAKO PETROLIO UPELAREN EGUNEKO PREZIOA



Inflazioaren jaitsieraren arduradun nagusiak erregaien prezio horiek izan zirenez, garraio taldea izan zen KPIaren bilakaeran eragin negatiboa izan zuena. Zehazkiago adierazita, talde horren aldaketa tasa $-7,6\%$ izan zen, aurreko hilekoan jasotakoa baino ia puntu bat txikiagoa, eta, oraingoz, petrolioaren prezioak azken asteotan izan duen goranzko zuzenketak ez du eraginik izan beraren bilakaeran. Aitzitik, beste talde batzuek, hala nola elikagaiak eta alkoholik gabeko

edariak eta etxebizitzak, goranzko eragin handiena izan zuten inflazio globalean. Hala bada, lehenengoek balio altuenak ($4,0\%$) erregistratu zituzten, baina aurreko hilabeteetan baino igoera apalagoa izan zuten, haragiaren eta arrain freskoaren prezioen beherakadak lagunduta. Azkenik, etxebizitzaren zerbitzuen prezioak sei hamarren igo ziren, argindarraren jaitsiera apirilekoa baino txikiagoa izan zelako.

KPI TALDE NAGUSIAK Urte arteko aldakuntza tasa. 2020ko maiatza

	Euskadi	Espainia	Eurogunea
INDIZE OROKORRA	-0,7	-0,9	0,1
Janariak eta alkoholik gabeko edariak	4,0	3,5	3,4
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,5	0,7	3,5
Jantziak eta oinetakoak	1,0	0,9	-0,7
Etxebizitza, ura, argindarra eta beste erregaiak	-5,6	-6,0	-1,3
Altzariak, etxeko tresneria eta mantentzea	0,1	0,4	0,7
Osasuna	0,6	0,3	0,9
Garraioa	-7,6	-8,0	-4,5
Komunikazioak	0,5	0,4	-0,8
Aisia eta kultura	-0,5	-0,1	0,3
Hezkuntza	1,4	0,8	0,3
Jatetxeak eta hotelak	1,1	1,8	1,5
Bestelako ondasunak eta zerbitzuak	1,0	1,6	1,7


Iturria: INE, Eurostat eta Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

NDF-REN AURREIKUSPENAK

Aurrekaririk gabeko krisi ekonomikoa

MUNDUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021

Munduko aurreikuspen ekonomikoak beherantz berrikusi ditu NDFk ekaineko txostenean. Pandemiaren okertzeak, urtearen lehen hiruhilekoan espero baino hazkunde ekonomiko okerragoak jaso izanak eta bigarren hiruhilekoan maiztasun handiko adierazleen ahuleziak eragin dute erakundeak eskualde guztietako aurreikuspen ekonomikoak nabarmen jaisteak.


Zehazki, Nazioarteko Diru Funtsaren arabera, munduko ekonomia %4,9 jaitsiko da 2020an, eta %5,4 haziko da 2021ean. Datu horiek 1,9 eta 0,4ko beherapena suposatzen dute, hurrenez hurren, apirilko aurreikuspenekin alderatuta.

NDF-REN AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK

	Oraingoak			Aurreko txostenarekiko aldeak	
	2019	2020	2021	2020	2021
Munduko ekonomia	2,9	-4,9	5,4	-1,9	-0,4
Ekonomia aurreratutak	1,7	-8,0	4,8	-1,9	0,3
AEB	2,3	-8,0	4,5	-2,1	-0,2
Eurogunea	1,3	-10,2	6,0	-2,7	1,3
Alemania	0,6	-7,8	5,4	-0,8	0,2
Frantzia	1,5	-12,5	7,3	-5,3	2,8
Italia	0,3	-12,8	6,3	-3,7	1,5
Espainia	2,0	-12,8	6,3	-4,8	2,0
Erresuma Batua	1,4	-10,2	6,3	-3,7	2,3
Japonia	0,7	-5,8	2,4	-0,6	-0,6
Garatzen ari diren herrialdeak	3,7	-3,0	5,9	-2,0	-0,7
Txina	6,1	1,0	8,2	-0,2	-1,0
India	4,2	-4,5	6,0	-6,4	-1,4
Errusia	1,3	-6,6	4,1	-1,1	0,6
Brasil	1,1	-9,1	3,6	-3,8	0,7


EKONOMIA AURRERATUEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




GARATZEN ARI DIREN EKONOMIEN BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




AEB-ETAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



ERRESUMA BATUKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa




2020an, familien kontsumoa nabarmen okertuko da ekonomia gehienetan. Halaber, inbertsioa murriztuko dela aurreikusten da, kapitaleko gastua atzeratzea eragiten duen ziurgabetasuneko ingurune batean. Pizgarriko politika publikoek konpentsatuko dute, neurri batean, barne eskari pribatuaren uzkuratzea. Iragarpenen arabera, munduko jarduerak hondoa joko du 2020ko bigarren hiruhilekoan eta hortik aurrera pixkanaka suspertuko da. 2021ean, 2019ko mailara iristea espero da.

Ziurgabetasun handia da pronostiko honen funtsezko elementua. Ekonomiaren bilakaera pandemiaren magnitudearen eta iraupenaren, beharrezko konfinamenduen, enpresak ixtearen ondorioen eta langileak lan merkatutik irritearen araberakoa izango da, beste faktore batzuen artean.

ESPAINIAKO BPGA

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: NDF.



ENPRESARIEN KONFIANTZA


Enpresen konfiantza nabarmen hobetu da ekainean

Ekainean beste urrats bat eman da ekonomia nagusietako eragileen konfiantza berreskuratzeko bidean. Izan ere, euroaren eremuko PMI konposatuak 47,5eko balioa izan zuen ekainean; kopuru hori eremu ezkorrean dago kokatuta oraindik, baina aurreko hilabetearekin alderatuta hamabost puntuko hobekuntza adierazten du. Hobekuntza horri esker, lau hilabete iraun duen V for-


mako bilakaera osatu da ia erabat. Sektoreka, ezkortasuna nabarmenagoa izan zen zerbitzuetan, baina ekainean zerbitzuen susperraldia manufacturatan izandakoa baino zertxobait biziagoa zen jadanik. Zehazkiago adierazita, zerbitzuen PMI 47,3ra igo zen, eta manufactura enpresena, berriz, 46,9ra. Uztailean 50. maila gainditzeko aukerak badaude.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020KO EKAINA
47,5




MANUFATUREN PMI. EUROGUNEA




ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA



PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




PMI KONPOSATUA. FRANTZIA




Hori da, hain zuzen ere, Frantzia jada gertatu dena, ekainean bertako indizea 51,3an kokatu baitzen, eremu baikorrera itzuliz, zerbitzuak (50,3) eta manufakturak (52,1) berriro suspertu zirelako.

Gainontzeko herrialde nagusiek antzeko bilakera izan dute, baina oraindik ez dute gainditu 50 puntuko langa. Zehazkiago adierazita, Alemania (45,8) maila horretatik lau puntura dago, AEBak (46,8) hiru baino gehixeagora eta Erresuma Batuari (47,6) are gutxiago falta zaiou. Dena den, herrialde horietako batzuetan sortzen hasi diren berragerraldiek igurikimenak okertzea ekar lezakete.


PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA



Iturria: Markit.



HILABETEKO LABURPENA

Aurreikuspenak okertu dira, baina konfiantza itzultzen ari da

Ekainean, maiatzeko zenbait ezaugarri mantendu dira, bai aurreikuspen ekonomikoek okertzeari dagokionez, bai eragile ekonomikoek konfiantza itzultzeari dagokionez. Lehen kasuan, **Nazioarteko Diru Funtsaren (NDF) aurreikuspen berriak apirilekoak baino nabarmen okerragoak dira**. Bi hilabeteko epe laburrean, ia bi puntutan murriztu du munduko ekonomiarentzat aurten espero zuen hazkundera, eta puntu erdi inguru, berriz, datorren urtekoa. Berrikusketara horretarako arrazoiak batzuk hauek dira: herrialde askotan okertu egin da pandemia, lehen hiruhilekoko datuak aurreikusi baino txarragoak dira eta bigarren hiruhilekoko adierazleak oso ahulak dira. Beheranzko zuzenketak oso garrantzitsuak dira Frantzia, Italia eta Espainiaren kasuetan, aurten beren BPGaren %12,0 baino gehiago galduko baitute.

Kontrako norabidean, **eragile ekonomikoek igurikimenak biltzen dituzten adierazle batzuk nabarmen hobetu dira ekainean**, kasu batzuetan hazkunde gunera itzuli arte. Esate baterako, Frantziako PMI konposatuak 50 maila gainditu du, eta eurogunekoak, berriz, 47,5ra igo da. Manufakturei dagokionez, Espainiak bere posizioa hobetu du eta 49,0ko balioa jaso du, hedapena eta uzkurdura bereizten dituen lerrotik puntu bakarrera geratu dela. Langa hori AEBek gainditu dute dagoeneko (52,6). Europako Batzordeak argitaratzen duen sentimendu ekonomikoari buruzko informazioa ere nabarmen hobetu zen ekainean, atal guztietan aurrerapauso garbiak lortu zirelako, nahiz eta zerbitzuek inoizko datu okerrenetan jarraitzen duten.

EAEko ekonomiaz ezagutu den informaziorik eguneratuena ekainari eta lan merkatuari buruzkoa da. Oro har, **ekonomia okerrera egiten jarraitzen du, bai afiliazioen estatistikan, bai erregistratutako langabeziaren datuetan**. Lehenengo kasuan, urte arteko jaitsiera %3,1 izan zen, hau da, aurreko urteko hilabete berean baino 30.500 afiliazio gutxiago zeuden. Osasun jarduerak eta administrazio publikoak bakarrik handitu dute afiliazioa aurreko urtearekin alderatuta. Maiatzarekin alderatuta, berriz, jaitsiera ia 4.000 afiliaziokoa da. Dena den, **pandemiak gehien zigortutako jardueretako batzuk hasi dira hilabete horretan beren enplegua handitzen**, normaltasunera itzultzearekin batera. Hori da eraikuntzaren, merkataritzaren eta zerbitzu osagarrien kasua.

Afiliazioen galera, kasu askotan, langabeziaren gorakada bihurtzen da. Ekainean, ia 144.500 pertsona zeuden langabezian Lanbideren bulegoetan, hau da, duela urtebete baino 33.100 gehiago eta maiatzean baino 2.700 gehiago. **Urte arteko tasa %29,7an kokatu zen, aurreko hilabeteetako baino zertxobait gorago**. Beste hilabete batez, langabeziaren intzidentzia handiagoa da gizonen artean (%39,1) emakumeen artean baino (%22,9), baina bereziki kezagarria da 25 urtetik beherako biztanleen artean, horien tasa %84,0 igo baita. Atzerritarren langabezia tasa ere handia da (%34,7) eta pertsona nazionalen tasa (%28,8) baino zenbait puntu gorago dago. Azkenik, aipatu behar da **suspertze txiki bat nabari dela kontratazioan**, nahiz eta oraindik ohiko kopuruetatik urrun dagoen. Izan ere, ekainean 50.600 lan kontratu sinatu ziren, apirilaren 26.600 eta maiatzaren 33.750 baino askoz kopuru handiagoa, baina oraindik ere 2019ko ekainean sinatu ziren 93.500 kontratuetatik oso urrun dago.

ESTADÍSTICA ERANSKINA. EUSKAL EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. EUSTAT. Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2
Barneko azken kontsumoa	2,5	1,9	2,1	1,9	1,9	1,7	-3,0
Familien kontsumoa	2,7	1,9	2,2	1,9	1,8	1,5	-4,8
Administrazioaren kontsumoa	1,6	2,1	1,9	2,1	2,2	2,2	4,1
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	4,0	2,5	2,2	2,4	-3,6
Barne eskaria	3,0	2,1	2,6	2,0	2,0	1,9	-3,1
Esportazioak	3,0	0,4	-1,4	2,8	-0,9	1,3	-7,5
Inportazioak	3,0	0,4	-0,8	2,6	-0,9	0,9	-7,3
Lehen arloa	7,9	0,6	1,7	-0,1	0,2	0,4	3,5
Industria eta energia	2,5	1,1	0,4	1,0	0,8	2,3	-3,6
Eraikuntza	4,1	3,1	4,6	3,2	2,9	1,9	-2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,2	-2,8
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	2,2	2,1	1,8	2,3	-5,1
Enplegua	2,6	1,6	1,8	1,7	1,6	1,3	-2,8

EKAINEKO AURREIKUSPENAK. EKONOMIA ETA PLANGINTZA ZUZENDARITZA . Urte arteko aldakuntza tasa

	2020			2020	2021
	II	III	IV		
BPG	-13,4	-10,3	-7,8	-8,7	6,7
Barneko azken kontsumoa	-11,0	-8,5	-6,5	-7,3	6,2
Familien kontsumoa	-16,4	-11,8	-9,1	-10,5	8,5
Administrazioaren kontsumoa	9,2	3,8	3,3	5,1	-1,7
Kapital eraketa gordina	-15,7	-11,2	-8,0	-9,6	7,1
Barne eskariaren ekarpena	-12,4	-9,4	-7,0	-8,0	6,6
Kanpo eskariaren ekarpena	-1,0	-0,9	-0,8	-0,7	0,1
Lehen arloa	-9,6	0,5	-9,6	-3,8	8,4
Industria	-12,9	-8,6	-6,2	-7,8	6,4
Eraikuntza	-8,6	-5,6	-4,8	-5,4	4,6
Zerbitzuak	-13,9	-11,1	-8,3	-9,0	6,9
Balio erantsi gordina	-13,3	-10,1	-7,6	-8,5	6,7
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	-14,3	-12,0	-9,1	-10,1	6,5
Lanaldi osoko lanpostuak	-10,7	-8,5	-5,7	-7,0	5,4
Landunak (BJA)	-4,8	-7,8	-6,3	-4,6	1,8

EAEKO AURREIKUSPENAK. BESTE ERAKUNDE BATZUK. Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
CEPREDE	-8,8	6,7	BBVA	-7,3	5,8
AFI	-7,5	—			

ESTADÍSTICA ERANSKINA. ESPAINIAKO EKONOMIA

TAULA MAKROEKONOMIKOA. INE
Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG	2,4	2,0	2,2	2,0	1,9	1,8	-4,1
Kontsumo pribatua	1,8	1,1	1,3	0,7	1,3	1,2	-5,8
Kontsumo publikoa	1,9	2,3	2,3	2,3	2,2	2,4	3,6
Kapital finkoaren eraketa gordina	5,3	1,8	4,8	0,5	1,4	0,6	-6,5
- Aktibo finko materialak	6,2	1,7	5,8	0,2	1,1	-0,1	-8,4
- Eraikuntzan	6,6	0,8	4,0	1,7	0,0	-2,2	-8,3
- Ekipamendu ondasunetan	5,7	2,6	8,3	-2,5	2,4	2,6	-9,3
- Jabetza intelektualaren produktuak	1,1	2,2	0,4	1,9	2,6	4,0	3,5
Nazio eskaria (ekarpena)	2,6	1,5	2,1	1,1	1,5	1,3	-3,7
Esportazioak	2,2	2,6	0,8	2,6	3,6	3,3	-6,1
Inportazioak	3,3	1,2	0,4	-0,2	2,7	2,1	-5,5

BPGAREN AURREIKUSPENAK .BESTE ERAKUNDE BATZUK
Urte arteko aldakuntza tasa

	2020	2021		2020	2021
AFI	-8,9	6,2	IEE	-11,0	5,5
Axesor	-10,8	6,9	Intermoney	-9,4	6,8
BBVA	-8,0	5,7	Mapfre Economics	-8,2	1,7
CaixaBank	-7,2	6,9	Repsol	-11,9	9,5
Cámara de Comercio España	-10,6	4,3	Ygroup Companies	-13,0	6,5
Cemex	-9,5	5,0	Universidad Loyola Andalucía	-9,8	7,2
CEEM-URJC	-9,2	6,8	Consenso (media)	-9,5	6,1
CEPREDE-UAM	-6,6	6,3	Gobierno (04-2020)	-9,2	6,8
CEOE	-10,2	5,9	Banco España (05-2020)	-9,5 / -12,4	6,1 / 8,5
Equipo Económico (Ee)	-10,0	7,2	Comisión Europea (05-2020)	-9,4	7,0
FUNCAS	-8,4	6,0	FMI (06-2020)	-12,8	6,3
ICAE-UCM	-8,5	5,6	Consensus Forecast (06-2020)	-9,8	6,8

Iturria: Espainiako Gobernua, AFI: analistas financieros internacionales, Repsol, NDF: Nazioarteko diru funtsa, BBVA, CEOE: Confederación española de organizaciones empresariales, FUNCAS, Espainiako bankua, CEPREDE, Economist intelligence Unit, Consensus Forecast, Axesor, Cámara de Comercio España, CEEM-URJC, Cemex, Equipo Económico (Ee), ICAE-UCM, Instituto de Estudios Económicos (IEE), Intermoney, Mapfre Economics, Universidad Loyola Andalucía, Ygroup Companies

ESTADÍSTIKA ERANSKINA. NAZIOARTEKO EKONOMIA

BPGAREN HAZKUNDEA Urte arteko aldakuntza tasa

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	
AEB	2,9	2,3	2,7	2,3	2,1	2,3	0,3
Txina	6,6	6,1	6,4	6,2	6,0	6,0	-6,8
Japonia	0,3	0,7	0,8	0,9	1,8	-0,7	-1,9
Kanada	2,0	1,6	1,5	2,0	1,6	1,5	-0,9
Europar Batasuna	2,0	1,5	1,8	1,5	1,5	1,2	-2,6
Eurogunea	1,9	1,2	1,5	1,2	1,3	1,0	-3,1
Alemania	1,5	0,6	1,0	0,3	0,7	0,4	-2,3
Frantzia	1,7	1,3	1,7	1,8	1,6	0,9	-5,0
Erresuma Batua	1,3	1,4	2,0	1,3	1,3	1,1	-1,6
Italia	0,8	0,3	0,3	0,4	0,5	0,1	-5,4
Herbehereak	2,6	1,7	2,0	1,6	1,8	1,6	-0,6

Iturria: Eurostat, BEA eta ELGE.

CONSENSUS FORECAST. 2020ko EKAINA Urte arteko aldakuntza tasa

	BPG		KPI		LANGABEZIA TASA	
	2020	2021	2020	2021	2020	2021
AEB	-5,6	4,4	0,8	1,8	9,8	7,9
Japonia	-5,3	2,6	-0,3	0,0	3,1	3,3
Kanada	-6,6	5,1	0,7	1,7	9,7	7,7
Europar Batasuna	-7,9	5,6	0,5	1,2	—	—
Eurogunea	-8,4	6,1	0,3	1,0	9,6	9,2
Alemania	-6,5	5,2	0,6	1,4	6,1	5,9
Frantzia	-9,7	7,0	0,3	1,1	10,2	9,9
Erresuma Batua	-9,0	6,1	0,9	1,3	7,4	7,1
Italia	-10,7	6,5	-0,1	0,6	11,6	11,5
Espainia	-9,8	6,8	-0,2	0,8	—	—
Herbehereak	-6,1	4,0	0,7	1,1	—	—

Iturria: Consensus Forecast.